

IKASLE MUTIL BERDINZALEAK HEZTEKO ERRONKA

*NAHIKO Programa
Ibai Fresnedo*

TESTUINGURATZEA


ABIAPUNTUA

- Eskolan generoen arteko desberdintasun egoeraren atzean dagoen BOTEREAREN ulerkeran, banaketan, erabileran eta honen transmisioan eta erreprodukzioan azpimarra jartzearen beharra.
- “Mutil” bezala sozializatutako haurrak zuzenean interpelatu behar ditugu eta parekidetasunaren paradigmaz erakarri.
- Neskekin zein mutilekin lanketa paraleloak egitearen beharra.


DESDERDINTASUNA:
AUKERA EDOTA BALIABIDE
BERDINEI SARBIDE EZA




BERDINTASUNA:
BALIABIDEAK, TRESNAK
EDOTA LAGUNTZA
UNIFORMEKI
BANATZEA/JASOTZEA




PAREKIDETASUNA:
DESBERDINTASUNA
IDENTIFIKATUZ ETA
JORRATUZ TRESNAK
EGOKITZEA



JUSTIZIA:
SISTEMA BERA
KONPONDUZ, BALIABIDEEI,
TRESNEI
EDOTA AUKEREI SARBIDE
BERDINTSUA AHALBIDETZEA




- MUTIL KATEGORIA ARDATZ
- MASKULINITATE TOXIKOA
JOMUGAN, BAITA
MASKULINITATEEN ARTEKO
HIERARKIZAZIOA
- INTERSEKZIONALITATEA
ARDATZ MASKULINITATEAREN
SUBJEKTIBIZAZIOA
ULERTZEKO ERE.



"Privilege & Oppression - Patricia Hill Collins" [euskaratua]*

JENDARTE ANTOLAMENDU HIERARKIKOA PRESENTE ESKOLAN



MUTILEN DESBOTERETZEA?

- “Ahul(dun)tzeari” eta “zaurgarritasunari” erreferentzia zuzena egitearen beharra.
- Mutilekin prozesu indibidualak zein kolektiboak abiatzearen beharra.
- Eskolaren baitako hainbat logika eta dinamikekin apurtu eta deserosotasuna eraldaketarako tresna planteatu eta kudeatu.

MASKULINITATEEN LANKETA LABURBILDUZ...

- Beharrezkoa da maskulinitatea lantzea baina harago joatearen premia dugu. Maskulinitatea ez baita mutilen jabetza soilik. Beraz, genero-adierazpenetan baino genero-subjektuetan jarri beharko genuke fokua.
- Mutilen artean ez badiogu feminitateari lekuri ematen, berriz ere, FEMENINOA-ren ukazioa eragin dezakegu.
- Maskulinitate “BERRI”, “ALTERNATIBO” edota “EZ HEGEMONIKO” kontzeptuak alboratzearen beharra (hezkuntzan ere).

GENERO SOZIALIZAZIOA

GENEROAREN SOZIALIZAZIOA

GENERO ROLEN ADIERAZPENAK

MASKULINOA

INDARTSUA
AUSARTA / ZUHURTZIAGABEA
ARRISKUAK HARTZEN DITUENA

ADIMENTSUA / JAKINTSUA
AKTIBOA (SUSTATZAILEA)
AUTONOMOA / INDEP.
INSTINTIBOA

LANGILEA
DEFENDATZAILEA / HEROIA /
SALBATZAILEA

AXOLAGABEA / HOTZA
BORTITZA
BOTEREDUNA

Femeninoa

ZAURGARRIA / HAUSKORRA / AHULA
BELDURTIA / ZUHURRA
PREBENTIBOA

EMOZIONALA / INOZOA
PASIBOA (HARTZAILEA)
MENDEKOA / DEPENDIENTEA
INTUITIBOA

ZAINZAILA
DEFENDATUA / SALBATUA

ENPATIKOA / GOXOA
BAKETSUA
BOTEREGABEA

GENEROAREN OPERATIBITATEA DOMINAZIO-SUMISIO LOGIKAPEAN

GENEROEN ERAIKUNTZA SINBOLIKOA DIKOTOMIEN BIDEZ

- AKTIBOA/PASIBOA
- BABESLEA/BABESTUA
- PRODUKTIBOA/ERREPRODUKTIBOA
- ZAINDUA/ZAINTZAILEA
- SUBJEKTUA/OBJEKTUA
- DESIRATZAILEA/DESIRATUA
- EDUKIA/EDUKIONTZIA
- PROBOKATUA/PROBOKATZAILEA
- ADIMENTSUA/EMOZIONALA
- HELDUA/HELDUGABEA

Genero-sozializazioa eta bakoitzaren identitatea zehazteko prozesua kontuan hartuta, elkar-lotutako hiru indar botere existitzen dira (eskola-testuinguruan ere agertzen direnak):


- **Esleipen soziala:** *instituzioek bakoitzari ezarritako etiketak eta kategoriak, hala nola, diskurtso soziopolitiko nagusi jakin batzuetan oinarritutako programak eta hezkuntza-politikak.*
- **Komunitatearen aitortza:** *besteek baieztatutako etiketak edo kategoriak, hala nola irakasleak edo ikastetxean berdinak direnak, bai eta ikastetxetik kanpoko familiak eta lagunak ere.*
- **Jardun pertsonala:** *erresistentzia aktibo edo pasiboko estrategiak, hau da, mutilek atxikimendu komunitario eta sozialari erantzuteko hartutakoak negoziazio- eta asimilazio-estategiak.*

ZER DA MASKULINITATEA?

- Balio maskulinoekin loturiko rol, jokabide, espektatiba, pentsaera eta sentimendu desberdinen multzoa da.
- Maskulinitatea gorputzetan, portaeretan eta gizarte-harremanetan eragina duen efektu-multzoa da, ondorioz, genero-subjektu maskulinoaren sortzaile.
- Generoaren kosmobisio edota subkultura partikularra. Kultura patriarkalaren posizio gorenean kokatzera eramango gaituena.


MASKULINITATE TOXIKOAREN EZAUGARRIAK

- AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA:
zaugarritasunaren eta dependentziaren
ukazioa
- INDIBIDUALISMOA ETA LEHIAKORTASUNA
- BABESLEA/HEROIA/GERLARIA
- INDARKERIAREN NATURALIZAZIOA eta
INSTRUMENTALIZAZIOA HARREMANETAN
- HORNITZAILEAREN PAPERA ETA
ENPLEGUAREN GARRANTZIA



- ANPUTAZIO ETA ERREPRESIO EMOZIONALA
- AUTOZAINZAREN ETA BESTEEN ZAINZAREN
UKAZIOA + ARRISKUAREN KULTURA

MASKULINITATE TOXIKOAREN EZAUGARRIAK



- HOMOFOBIA eta MISOGINIA
- PROTAGONISMOA ETA INBASIOA
- OROJAKITURIA ETA BETI ARRAZOIA
SENTIMENDUEN GAINETIK
- FEMENINOAREKIKO DESMARKATU eta
EMAKUMEAK KULPABILIZATU
- EMAKUMEA "OBJEKTU" BIHURTZEA
- ANAITASUN MASKULINOA edo KORPORATIBISMOA
- PRIBILEGIO DESBERDINEN MANTENUA:
Familiarrak, sexualak, laboralak eta sozialak

MASKULINITATEA ESKOLAN

MASKULINITATEAREN PRAKTIKA ARAUTZAILEAK

MASKULINITATEAREN AUTOERREGULAZIORAKO PRAKTIKA ARAUTZAILEAK

- **Maskulinitatean autoerregulazioaren eta praktika normalizatzaileen zeregina funtsezkoa da.**
- **Maskulinitatea sozialki onargarriak diren formetan erakusten eta irudikatzen ikasten dute.**
- **Arreta berezia jarri behar dugu mutilen bizipen eta harreman sozialetan maskulinitateen hierarkiak duen eraginean.**

Hortaz, aztertu behar dugu nola jarduten duten faktore soziokulturalek, ekonomikoek eta pedagogikoek, mutilek beren maskulinitateak irudikatzeko dituzten moduetan:

- **Nola irudikatzen, elkar-lotzen eta negoziatzen dituzte mutilek maskulinitate modu jakin batzuk, eta zer nolako eragina du honek beren eskola-bizipenetan?**
- **Zer praktika hartzen dituzte mutilek ikastetxean maskulinitatearen agindu jakin batzuei aurre egiteko modu gisa?**
- **Zer eginkizun betetzen dute ikastetxeek mutilak beren maskulinitateak irudikatzeko moduarekin lotutako sailkapen dualista eta hierarkiko jakin batzuen finkapenean?**

MUTILAK, GORPUTZAK ETA MASKULINITATEA

"Gorputz gihartsu baten jarrerak, tentsioak eta ehundurak dira botere maskulinoa naturaren ordenaren parte gisa irudikatzeko modu nagusienetako bat"

(Cassandra Loeser-soziologoa)

MUTILAK, GORPUTZAK ETA MASKULINITATEA

- **Mutilek gorputz "normal" maskulinoari buruz dituzten ideia argiak dituzte** (gihar-masa, zakilaren tamaina eta ibiltzeko zein hitz egiteko moduak barne).
- **Gorputz-irudia edota dekorazioa maskulinitate "normal" eta "anormalaren" adierazle gisa:** mutilek arropa, bitxiak, makillajea eta autoirudiarekin loturiko beste teknika batzuei buruz dituzten ideiek beren maskulinitateak definitzen laguntzen dute.
- **Ikastetxeak maskulinitatearen erakusketa fisiko oldarkorrak erreproduzitzeko eta indartzeko espazio eraginkorrak** izan daitezke.

MUTILAK, GORPUTZAK ETA MASKULINITATEA

- **Gorputz maskulinoa = gorputz atletikoa = gorputz erakargarria = gorputz desiragarria**
- **Eskakizun fisikoekin betetzen ez duten mutilentzat eskola ez da leku segurua.**
- **Gorputz-ekintza jakin batzuengatik, keinuengatik, posturengatik edo ahots-tonuengatik feminizatutako maskulinitatetzat ere hartzen dira. Hauek femeninotzat edo homosexualtzat hartuz.**

MASKULINITATEA ETA BERDINEN ARTEKO HARREMANAK

MASKULINITATEA ETA BERDINEN ARTEKO HARREMANAK

Eskoletan, berdinen artean maskulinitateen hierarkia negoziatzen eta ezartzen da; horregatik, interesgarria da arreta honako hauetan jartzea:

- **Berdinen talde batean baztertze/sartze irizpideak**
- **Mutilek laguntasunaren mugak definitzeko eta negoziatzeko erabiltzen dituzten sailkapenak**
- **Laguntasunaren eta "kidegoaren" arteko aldea eta nola interpretazio homofoboek mutilen arteko intimitate-mailan eragiten duten.**
- **Mutilek neskekin duten laguntasuna.**

MASKULINITATEA ETA ESKOLA-JAZARPENA

MASKULINITATEA ETA ESKOLA-JAZARPENA

- **"Mutil normalen" portaera-arau edota erregulazioekin bat ez datozen mutilak jazarpen-jomuga bihurtzen dira.**
- **Jazarpena maskulinitatearen erritual edo praktika normalizatzaile gisa agertzen da, eta hau eskola-bizipenetan legitimatzen eta kristalizatzen da.**
- **Ohikoa da ere jazarpen-estrategiak erabiltzea abusu gehiago ez jasateko edo hierarkian gora egiteko erritu gisa.**

MASKULINITATEA ETA ESKOLA-JAZARPENA

- **Jazarpena, gaiztoa/"malotea" edo zintzoa izatearen arabera: maskulinitasun antiautoritarioa**
- **Baztertua bazaude, ez da gauza bera eskandalosoa eta dibertigarria izatea, edo lotsatia eta barnerakoa izatea.**
- **Maskulinitateak eta jazarpen-hierarkiak: soslaiak identifikatzea**

ESKOLAREN EGINKIZUNA

ERRONKA NAGUSIAK

- Hezkuntzan generoaren izaera arautzailea argitara ekartzen hastea, errotik eta era sakonean.
- Hezkuntza prozesu afektibo bezala ulertzea, ez soilik kognitiboa.
- Hezitzaileen partetik autoritatearen birplanteamendua egitea.
- Mutilek mutil izate hutsagatik dituzten pribilegioen etengabeko errebisio sakona egitea: sozialak, familiarrak, sexualak,...

ERRONKA NAGUSIAK

- Eskolan lora daitekeen politikoki zuzena den diskurtsoaren aurrean indarkeria sinbolikoak argitara ekartzen hastea.
- Mutilek, kolektiboki, beste mutilen jarrerak kritikatzeko eta salatzekeo tresnak eskuratzea.
- Lanketa bera gako positiboetan eta abantailen planoan zentratzea (ez bakarrik aspektu negatiboetan edota galeretan)

ESKU-HARTZERAKO ESPAZIOAK ETA PRAKTIKAK

ESKU-HARTZERAKO ESPAZIOAK ETA PRAKTIKAK

❑ MASKULINITATEEI BURUZ GALDETZEA IKASTETXEAN

- Ikasleek beren maskulinitateak ezagutzeko eta espektatiba sozialen beren bizitzetan dituzten ondorioak baloratzeko espazioak sortzera bideratutako ikuspegia eta estrategiak txertatu.
- Hau curriculumaren markoaren barruan baitan, eta ez, sinbolikoki eta fisikoki eskolako eguneroko praktika pedagogikoetatik at dagoen programa espezifikoko baten barruan.
- Maskulinitateei buruzko lanketa gorputz-hezkuntzako ikasgaiari bereziki: kirolaren soziologia kritikoa eginez, eta gorputz-hezkuntzaren kontzeptua gorputz osoari irekiz.
- Irakasleek beren curriculum ezkutua galdetzea.

ESKU-HARTZERAKO ESPAZIOAK ETA PRAKTIKAK

- ☐ **MORALISMOAK SAIHESTEA** (adib.ikasle ona/ikasle txarra)
- ☐ **ESPAZIO FISIKOAK AZTERTZEA**
- ☐ **EZOHIKOTASUNETIK ETA EZOHIKOTASUNERAKO HEZI:**
NORMALA ERDIGUNEAN eta JOMUGA, EZ DESBERDINA
- ☐ **POLITIKA PEDAGOGIKOEN ETA IKASKUNTZAREN**
ARTEKO DISTANTZIAK ETA KONTRAESANAK AZTERTU

❑ MUTILEI MASKULINITATEAK BERAINGAN EDUKI DEZAKEEN ERAGINA AUTOBEHATZEKO ERRAMINTAK EMAN

- o Autozaintza eta osasuna
- o Harremanak (intimitate-maila, asebetetzea, onurak eta deserosotasunak,...)
- o Besteekiko duten entzuketa maila
- o Beraien parte-hartze maila
- o Beraien gorputzarekiko eta besteen gorputzekiko balorazioari buruzkoa
- o Beraien esfortzu, konpromiso eta ardura-mailari buruzkoa

❑ GELAN ZEIN BESTELAKO ESPAZIOETAN DAUDEN ROLAK, ADIERAZPENAK ETA DISKRIMINAZIOAK AZTERTZEKO MOMENTUAK SORTU

❑ FAMILIA EDOTA SARE AFEKTIBOA GAKO NAGUSIA

Gure ikasle mutilen sare afektibo eta familiarretan gertu dituzten gizonak eskolara erakartzea

HELBURU ZEHATZAK MUTILEKIN

- Mutil izateari buruzko autokontzeptua deskribitzea.
- Mutil izate horrek neskengan dituen efektuak eta ondorioak identifikatzea.
- Jarrera oldarkorrak -fisikoak eta ahozkoak- identifikatzea eta kontrolatzea.
- Mutilengan afektuzko hurbileko harremanetarako interesa sustatzea.
- Enpatiarako gaitasuna garatzea.
- Nesken lidergoa onartzen eta baloratzen sustatzea
- Generoen arteko elkarlanerako harremanak areagotzea.
- Mutilek nagusitasun-mendekotasun egoerak identifikatzea.




ERALDAKETARAKO GAKOAK NON?

- BOTERE MASKULINOAREN ONDORIOETAN ETENGABEKO ARRETA
- MUTILEN ORDEZKARITZA eta PARTE-HARTZEA NEURTZEA
- ZAURGARRITASUNA ETA AHULGUNEAK ONARTZEA
- ADIMEN EMOZIONALAREN GARAPENA: SENTITZEA, ONARTZEA ETA ELKARBANATZEA
- LAGUNTZA ETA BABESA ESKATZEA
- GATAZKAK KONPONTZEKO BORTITZAK EZ DIREN METODOAK ERABILTZEA
- TRADIZIONALKI “FEMENINO” BEZALA ETIKETATUTAKO EZAUGARRI, JARRERA ETA PORTAERAK IKASTEA, ONARTZEA ETA BALIOAN JARTZEA.

LABURBILDUZ...

- **IKUSPEGI INTEGRALA ETA KRITIKOA**
- **IRAKASLEEN GARAPEN PROFESIONALERAKO AUKERAK**
- **IKASLEEN AHOTSA, ARMA PEDAGOGIKO GISA**
- **GENERO-IKERKETA BAT EGITEA**
- **IKASLEEN INPLIKAZIOA ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN ETA ESKOLAREN KUDEAKETAN**
- **IRAKASLEGOAREN ETA IKASLEGOAREN ARTEKO LOTURA ERREALEN SUSTAPENA**
- **CURRICULUM EGOKIA**

BALIABIDEAK




BALIABIDE GEHIAGO (bibliografia)

- . *Las actitudes del profesorado ante la coeducación* (Xavier Bonal | GRAÓ)
- . *Cómo educar en la diversidad afectivo-sexual en los centros escolares* (Mercedes Sánchez | CATARATA)
- . *La construcción de las identidades de género – actividades* (Alba Barbé, Sara Carro eta Carles Vidal | CATARATA)
- . *Coeducación, apuesta por la libertad* (Marina Subirats | OCTAEDRO)
- . *Balones fuera* (Marina Subirtas eta Amparo Tomé | OCTAEDRO)
- . *Pedagogías Queer* (Mercedes Sánchez Sáinz | CATARATA)
- . *ONGIZ-ON!* (X. Odriozola, M. Pizarro eta A. Aritzeta | EREIN)
- . *Feminitate eta maskulinitate alternatibo, askotariko eta berdinzaleak eraikitzen* (Unesco Etxea)
- . *Buenos Tratos – Prevención de la violencia sexista* (M^a Antonia Caro eta Fernando Fernández-Llebrez | TALASA)

IBAI FRESNEDO

ibai@hirukilarroxa.eus

HIRUKI  LARROXA

